

INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA 2020

BI URTEAN BEHINGO JARRAIPEN-TXOSTENA 2016
Memoria



APIRILA 2017

Edukien Taula

1.	Sarrera.....	1
1.1.	IV. Ingurumen Esparru Programaren edukia eta egitura	2
1.2.	IV. IEP programak plangintza estrategikoko gainerako dokumentuekin duen lotura	5
1.3.	IV. IEP programaren jarraipena eta ebaluazioa.....	7
2.	6 Proiektu Giltzarrien jarraipena	10
2.1.	Lorpen eta erronka nagusiak.....	10
2.2.	Emaitzak	11
3.	75 jardueren jarraipena	18
3.1.	Metodologia	18
3.2.	Emaitzak	24
4.	Laburpena, ondorioak eta gomendioak.....	33


1. Sarrera

EAEko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programak (IV. IEP 2020) Jaurlaritzak ingurumenaren eta garapen jasangarriaren esparruan dituen politika publiko, gidalerro eta helburu guztiak hartzen ditu barne. Dokumentu estrategiko gisa, haren prestakuntza- eta jarraipen-prozesua Lehendakaritzak koordinatu, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak sustatzen du.

Dokumentu hau IV. IEP 2020 programaren bi urtean behingo lehen jarraipen-txostena da. Txostenak Programa horretan aurreikusitako jardueren eta proiektu giltzarrien aurrerapen-maila jasotzen du (2016ko abenduan), 2014ko abenduko (2014/12/02) Gobernu Kontseiluan onartu eta bi urtetara.

Hurrengo irudian modu eskematikoan agertzen dira IV. IEP programarako aurreikusitako jarraipen- eta ebaluazio-tresna eta -mugarri guztiak. Gobernu Kontseiluak onartutako txostena den heinean, haren jarraipena eta ebaluazioa nahitaez egin beharrekoak dira, adierazitako terminoetan.

1. Irudia. 2020rako IV. IEPren jarraipen- eta ebaluazio-tresnak




Arestian aipatutako jarraipen- eta ebaluazio-eskema horren barnean, 2016ko bi urtean behingo txosten hau egindako jarraipenaren lehen mugarri ofiziala dela esan genezake; hark 2017rako aurreikusitako tarteko ebaluazioaren euskarri gisa jardungo du.

1.1. IV. Ingurumen Esparru Programaren edukia eta egitura

2020rako IV. IEP 75 jardueretan (6 helburu estrategikotan zehaztutako 21 jarduteko-lerrotan banatuta) eta 6 proiektu giltzarritan artikulatuta dago, erantsitako irudian eskematizatzen den moduan.

2. Irudia. 2020rako IV. IEPren egitura



IV. IEP programako jarduerak ingurumena hobetzeko helburu garbia dute, eta Ingurumen Sailburuordetzari dagokio, batik bat, horiek gauzatea. Proiektu giltzarriek zeharkako izaera dute, eta ingurumenari beste gobernu-eremu batzuetan balioa ematea dute helburu; hori dela eta, baterako lidergoaren bitartez gauzaten dira.

1. Koadroa Zer dira proiektu giltzarriak?

6 proiektu giltzarriek etorkizuneko ingurumen-erronkei Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren ikuspegi bateratutik ekiten diete, Lehendakaritzaren koordinazioa dute eta hainbat Sailen aitzindariak partekatuta.

Proiektu giltzarrien funtsezko helburua IV. IEPn planteatutako helburu estrategiko bat edo gehiago sendotzea eta/edo berorietatik tira egitea da. Betiere ingurumen arloko gobernantza bikain baten ikuspegitik, non erantzunkidetasun publiko-pribatua izango den nagusi.

Denbora-muga 2020an duten proiektuak dira eta, kasu guztietan, ekintzara bideratuta egoteaz gainera, epe laburrean (2-3 urte) emaitza praktikoak eta ukigarriak lortzeko xedea dute. Proiektuak ezartzeak plataformak (formalak edo ez-formalak) sortzeko balioko du, haien sustatzaile diren Eusko Jaurlaritzako Sailen artean ahalmenak elkar ditzaten, konfiantza eta konplizitateko espazioak sor daitezten eta baliabideak eta elkarren arteko lan teknikoak partekatzeko balio dezaten. Era horretan sinergiak eta biderkatze efektua baliatzen dira eta eragileen artean ikastea eta ezagupenak transferitzea ahalbidetzen da, lankidetzaren eta berrikuntzaren publikoa ezaugarri izango diren esparru batean.

Dituzten helbururen arabera, proiektuak irekita daude Foru Aldundiek, Udalek edota beste erakunde batzuek parte har dezaten, bai-eta lankidetzaren publiko-pribaturako ere. Era berean, Unescoren Mab programarekin (Man and Biosphere) bat eginez, proiektu horiek abian jartzeko laborategitarako bokazioa duen espazio gisa irudikatzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserba.

1.2. IV. IEP programak plangintza estrategikoko gainerako dokumentuekin duen lotura

IEP Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorraren lege-mandatu bidez egin da. 6. artikuluan dioen moduan, EAEko ingurumen-politika Ingurumen Esparru Programa batean islatuko da, eta lau urtez behin egingo du ingurumen-organoak.


Kasu honetan, 3/98 Legea argitaratu denetik lehenengoz, IEPren laugarren edizioak 4 urtetik gorako iraupena eta horizontea izango ditu, hura Europako eta nazioarteko ingurumen arloko erreferentzia nagusiekin lerrokatzeko helburuarekin, eta, bereziki, 2020ra arteko Europar Batasunaren Ingurumen arloko VII. Ekintza Programa Orokorrarekin –«Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz»– lerrokatzeko helburuarekin.

Izenak berak dioen moduan, IEPk bere «esparru» izaera azpimarratzen du, hau da, definizioz, behar bezala bideratutako erreferentzia komun bat eskaintzen dio euskal jarduketa publiko osoari, prozesu parte-hartzaile esanguratsu batean oinarrituz eraiki baita, euskal eragile publikoen eta erakundeen arteko adostasunarekin. Horrenbestez, haren eragin-eremua ez da ingurumen-administrazioen jarduketa bideratzera bakarrik mugatzen (tradizioz, ingurumen naturalean, ingurune fisikoan –airea, ura, lurra–, hondakinetan eta abarretan oinarritu izan dira), eta, oraingoan, edozein euskal administraziori eskaintzen dio orientazioa, haren jarduerak ingurumenean nabarmen eragiten duenean (energiaren, garraioaren, industriaren eta nekazaritzaren eremuetan lan egiten dutenean, adibidez) eta/edo ingurumen-alderdiek eragiten diotenean.

Arestian aipatutako arrazoia dela eta, euskal erakunde publiko batek (ingurumen-izaera izan ala ez) prestatutako estrategia, plan, programa edo neurri-sorta guztiak hura prestatzen ari den unean indarrean den kasuan kasuko Ingurumen Esparru Programarekin lerrokatuta egongo dira, horien ingurumen-eragina esanguratsua izan daitekeenean. **3. irudian**, gaur egun Euskadin indarrean diren dokumentu estrategiko horien adibide batzuk jasotzen dira, horiek onartu ziren unean indarrean ziren IEP programekin lerrokatuta. Beste dokumentu estrategiko garrantzitsu batzuk (ingurumen arlokoak nahiz beste mota batekoak) prestakuntza- edo izapidetze-fasean daude, edo oraindik onartzeko zeuden jarraipen-txosten hau prestatu den momentuan. Horien kasuan ere IV. IEP hau oso erreferentzia bideragarria izango da. Adibide esanguratsuen artean, honako hauek ditugu: LAGen berrikuspena; Garraio Jasangarriaren Gidaplana, eta Mugikortasun eta garraio arloko estrategia erkidea; lurzorua babesteko estrategia eta lurzoru kutsatuen plana, eta abar.

Edonola ere, dokumentu estrategiko horiek (estrategiek, planek, programek eta/edo neurri-sortek) beren helburuak, denbora-mugak, jarduerak, adierazleak eta irizpideak dituzte horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko, bakoitzaren helburuei eta denbora-mugei dagokienez. Horrenbestez, horien jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak eta -emaitzak ere independenteak dira IV. IEP 2020 honekiko.

3. Irudia. Ingurumenean eragiten duten dokumentu estrategikoen adibideak



IEP ez da dokumentu estrategiko zehatz baten barnean formalki planifikatutako jarduera publikoak bideratzera bakarrik mugatzen. Aitzitik, IEP programak balio goren bereganatzen du euskal administrazio publikoaren funtzionamenduari dagozkion jarduketak, jarduera eta dinamiken ingurumen-alderdia inspiratzea eta bideratzea ahalbidetzen duenean, eta horiek ingurumenaren ebaluaziorako prozedura formal baten barneko dokumentu batean estaltzen ez direnean. IEP programarekin lerrotatzeak hainbat abantaila eskaintzen dizkie jarduketei, horiek exekutatzean zein ingurumen-irizpide kontuan hartzen eta aplikatzen diren bermatzen baitie.

1.3. IV. IEPren jarraipena eta ebaluazioa

IV. IEPk bi ebaluazio- eta jarraipen-mekanismo hartzen ditu barne:

- **Bi urtean behingo jarraipen-txostenak.** IEP 2020 programan aurreikusitako jardueren eta proiektu giltzarrien aurrerapen-maila jasotzen dute. 2016an eta 2018an egingo dira. Txosten horiek euskarri gisa balio dute Programaren tarteko eta azken ebaluazioetarako.
- **Ebaluazio-txostenak (tartekoa eta azkena).** Txosten horiek 2017an eta 2020an egingo dira, azken hori hurrengo IEP elaboratu aurreko urrats gisa.

Grafikoki, jarraipen- eta ebaluazio-eskema hori dokumentu honetako **1. irudian** islatzen da.


IEP 2020 programaren betetze-mailaren tarteko eta azken helburuak honako hauek dira, IV. IEPren 4.3. Kapituluaren zehaztutakoarekin bat etorritik:

1. Taula. 2020rako IV. IEP 2020ren jarraipen- eta ebaluazio-helburuak

AGINTE-KOADRO INTEGRALA	2017RAKO HELBURUA	2020RAKO HELBURUA
IEP 2020n aurreikusitako jardueren egikaritze maila	>% 50	% 100
Proiektu giltzarrien egikaritze maila	>% 70	% 100
Ebaluazio-txostenak egitea	2017ko tarteko ebaluazioa	2020ko azken ebaluazioa
Jarraipen-txostenak egitea (bi urtean behin)	2016, 2018 eta 2020	

Helburu horiek erantsitako irudian laburbiltzen dira, modu grafikoan.

4. Irudia. IV IEPren jarraipen - eta ebaluazio-helburuak



- 2017rako lehentasunezko jardueren ohiko bilakaera lineala*
- 2020rako lehentasunezko jardueren ohiko bilakaera lineala*
- Proiektu giltzarrien bilakaera (ez lineala)

*** Argigarri gisa (jardueren plangintzak ez du zertan lineala izan)**

Jardueren egikaritze-helburuak 2017ra eta 2020ra zehaztutako ehunekoetan adierazita daude.

2016rako mugarririk horiek adierazgarri eta erreferentzia gisa baino ez dira adierazi, jardueren bakoitzaren ezarpen-eskemak ez baitu zertan lineala izan; izan ere, hura aldatu egiten da kasuz kasu, jardueraz jarduerara, hainbat baldintzatzailearen eta, batez ere, aurrekontu-errealitatearen arabera.

Oro har, jardueren jarraipena egiteko hautatu den adierazlea (ehuneko bidez adierazten da) neurri bat da, IV. IEPren jardueren bakoitzaren formulaziotik eratorritako ingurumen arloko irizpideek eta gidalerroek erreferentziatzeko esparru erkide bat lerrokatzen eta ahalbidetzen baitute, baita irizpide erkide batzuk ere. Horiek euskal administrazio publikoaren jarduerak bideratzen dituzte eta, berez, horiek aplikatu behar dira IEP-ko ezarritako denbora-horizontean (2017ra edo 2020ra, jarduketaren bakoitzari esleitutako lehentasunaren arabera).

Bestalde, eta IEPko jarduerak ingurumen-izaerako eta/edo ingurumen-eragin nabarmeneko beste plan, programa edo neurri-sorta batzuetan jasotako jarduerekin zuzenean lotuta daudenean (3. irudian adibide gisa adierazten direnak, esaterako) eta horiek euskal administrazioen aldetik sustatzen direnean, hurrengo Taulan adierazitako ñabardurak egin behar dira, jarraipen-informazioaren interpretazioarekin lotuta.

2. Koadroa Jarraipen-irizpideen interpretazioari buruzko ohar argigarria

2020rako IV. IEPren jarraipen-emaizak ez dira, inola ere, euskal administrazioek sustatutako ingurumen-izaerako eta/edo ingurumen-eragineko gainerako plan, programa edo neurri-sorten jarraipen-emaizekin identifikatu edo parekatuko (ikus adibide batzuk **3. irudian**).

Plan, programa edo neurri-sorta horiek beren denbora-muga, adierazleak eta irizpideak dituzte horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko orduan, betiere bakoitzaren helburuak kontuan hartuta.

IEP honek plan, programa edo neurri-sorta horiekin zuzenean lotutako jardueri esleitzen dien egikaritze-ehunekoa plan, programa edo neurri-sorta horietan aurreikusitako jardueren ezarpena nola garatzen ari den aztertzeko neurketa orokor erdi-kuantitatibo baten gisa hartu behar da, **IEPn zehaztutako horizonteetan** (eta helburuen kasuan?) (hau da, 2017 edo 2020, bakoitzari dagokion kasuan). Aurrerapena dokumentu horietan 2017 edo 2020rako aurreikusten denera egokitzen bada, IEPk esleitutako ezarpen-ehunekoa % 100ekoa izango da, baita jarduera horiek amaitu ez badira ere, beren plangintzetan 2017 edo 2020tik gorako denbora-mugak formulatu direlako, hain zuzen ere.

2. 6 Proiektu Giltzarrien jarraipena

Jarraian, Memoriaren kapitulu honetan, 6 Proiektu Giltzarrien jarraipenerako informazioaren laburpena eta balorazioa jasotzen dira. Proiektu horietako bakoitzaren jarraipenari buruzko informazio xehatua dokumentu honetako 1. Eranskinean jasotzen da.

2.1. Lorpen eta erronka nagusiak

Proiektu Giltzarriak, euskal ingurumen-politikaren aldaketa-eragileak

IV. Ingurumen Esparru Programaren Proiektu Giltzarriek Euskadiren gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-garapenerako 6 lan-esparru estrategiko osatzen dituzte (2020ko denbora-horizontea dute). Indarraldiko lehen bi urteetan (2015-2016) garatutako lanek honako bereizgarri hauek dituzte:

- Ingurumen jasangarria lortzea dute helburu, pertsonen bizi-kalitatearen euskarri gisa, baita gizarte modernoa eta kohesionatua garatzea ere.
- Euskadiko helburu ekonomikoak bete daitezela sustatzen dute, mundu-mailako merkatuan lehiakorragoa izango den enpresa-ehuna bilatuz, betiere ingurumen-jarrera ezin hobean, baliabideen erabilerekin lotutako eraginkortasunean, ekodiseinuan eta ekoberrikuntzan oinarrituz.
- Esku-hartzeak Europar Batasuneko VII. Ingurumen Programak adierazitako ingurumen-erronkekin lerrokatuta daude.
- Epe ertaineko ekintzan eta emaitzetan oinarritzen dira.
- Berrikuntza eta erreferentzialtasuna dituzte xede. Proiektu Giltzarrien barnean garatutako lanek anbizio handiko ikuspegia eta izaera dute, eta aitzindariak dira Estatuan eta Europan.
- Baterako lidergoa bermatzen duten, gaitasunak batzen dituzten, konfiantzazko lekuak sortzen dituzten, eta baliabide teknikoaren eta giza baliabideen hartu-emanaren errazten duten sailen arteko lan-plataforma gisa funtzionatzen dute.
- Lehendakaritzaren koordinazio-eginkizun zentrala, proiektuei Eusko Jaurlaritzaren baterako ikuspegia emateaz gain, euskal administrazioetako eragile guztien partaidetza sustatu baitu.

2017rako erronka nagusiak

- Proiektu Giltzarriei sustapen politikoa ematea (Lehendakaritzaren baterako lidergoa eta Sailarteko Batzordearen berraktibazioa).
- Garatutako lana azpimarratuko duen eta lortutako emaitzen efektu biderkatzailea eragingo duen komunikazio eraginkorra garatzea.

2.2. Emaitzak

Jarraian, proiektu giltzarrien garapen-mailaren banakako laburpena aurkezten da, bakoitzaren plangintza kontuan hartuta.

5. Irudia. Proiektu bakoitzaren jarraipen-emaitzen sintesia

1. PG. ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA INGURUMENAREN ALDETIK	 ALTUA
2. PG. LURRALDE OSASUNGARRIA	 ERTAINA
3. PG. INGURUMEN-FISKALITATEA	 BAXUA
4. PG. FABRIKAZIO BERDEA	 ALTUA
5. PG. ELIKADURA ZIRKULARRA	 ERTAINA
6. PG. AZPIEGITURA BERDEAK	 ALTUA

1. PROIEKTU GILTZARRIA. ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA INGURUMENAREN ALDETIK

Euskal administrazio publikoak paper eredugarria jokatu behar du herritarren, enpresen eta erakundeen aurrean, izan ere, erantzukidetasuna eskatzen baitie, eta ingurumenarekiko arduraz jokatzeari.

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-eredugarritasunaren arloan lurralde nabarmen gisa kokatzea da 2020rako helburua.

Gaur egungo garapena, plangintzaren arabera



ALTUA

JARDUERAK

1.1 Jaurlaritzak eskaintzen dituen zerbitzuak ingurumenaren aldetik modu jasangarriagoan egitera bideratutako jarduerak ezartzea.	BAXUA
1.2 178/2015 Dekretua, irailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa.	ALTUA
1.3 Euskal Administrazio Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Lege Proiektua.	ALTUA
1.4 Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2020.	ALTUA

PROIEKTUAREN EMAITZAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko 178/2015 Dekretua onartu da, eta eraikin eta parke mugikorreko inbentarioak garatu dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Lege-proiektuaren izapidetze-prozedura jarri da martxan Eusko Legebiltzarrean.
- Euskadiko 2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa garatu eta onartu da.

2. PROIEKTU GILTZARRIA. LURRALDE OSASUNGARRIA

Azterlan eta ikerketa ezberdinek gero eta argiago islatzen dute osasunaren, ongizatearen, bizi-kalitatearen eta ingurumen fisikoaren arteko erlazioa. Osasun- eta ingurumen-aldagaiak euskal politikan txertatzeko helburuarekin aurrera egitea, eta ingurumenean oinarrituz herritarren osasuna arriskuetatik babesten laguntzeko mekanismoak artikulatzea da Proiektu Giltzarri honen lehentasuna.

Euskadiko udalerrietan osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea da 2020rako helburua.

Gaur egungo garapena, plangintzaren arabera



ERTAINA

JARDUERAK

2.1 Osasun eta hiri-garapen jasangarriaren ekitaldea.	ERTAINA
2.2 IV. Ingurumen Esparru Programaren osasun-lentearen azterketa.	AMAITUTA
2.3 Aire eta Osasuna – Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea.	ERTAINA
2.4 Ura eta osasuna.	ETORKIZUNERAKO GARAPENA
2.5 Osasun- eta ingurumen-adierazleen panela eguneratzea.	BAXUA
2.6 Klima-aldaketak osasunean eragiten dituen ondorioen azterketa.	ETORKIZUNERAKO GARAPENA
2.7 2016ko Ingurumen Profila: Aire.	ALTUA

PROIEKTUAREN EMAITZAK

- «Tokiko hirigintza-jarduerek osasunean zer eragin duten aztertzeko gida praktikoa» sustatu da administrazioko langileei bideratutako prestakuntza-jardunaldietan eta -ikastaroetan.
- IV. Ingurumen Esparru Programaren balorazio-txostenaren garapena, osasun-lentearen bitartez.
- Eragina izan duten egoeretan, KOHak zaintzeko barne-protokolo bat egin da.
- Airearen kalitate-mapak argitaratu dira, udalerrri bakoitzeko.
- Airearen Profilaria buruzko 2016ko dokumentu teknikoa eta dokumentu dibulgetzailea egin dira.

3. PROIEKTU GILTZARRIA. INGURUMEN-FISKALITATEA

Erreminta fiskalek eragin nabarmena dute herritarren eta erakundeen kontsumo-jarreretan. Hori kontuan hartuta, herritarren, enpresen eta erakundeen ingurumenarekiko jarrera arduratsuak sustatuko dituen sistema bat ezarri nahi da Euskadin. Hondakinak dira, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak ingurumen fiskalitatean adierazi duen lehen lan-esparrua.

Gizarte eta ekoizpen jasangarriago baten aldera bideratuko den fiskalitate eredu bat eraikitzea da 2020rako helburua.

Gaur egungo garapena, plangintzaren arabera



BAXUA

JARDUERAK

3.1 Hondakinen esparruan erreminta fiskalak ezartzeko aukerak aztertzea	ERTAINA
3.2 Euskadin fiskalitate berdea ezartzeko potentzialaren azterketa, Europarekin bat etorritz	BAXUA

PROIEKTUAREN EMAITZAK

- Hondakinen esparruan erreminta ekonomikoak diseinatzeko dokumentu bat prestatu da.
- Agregakinen erauzpen eta merkaturatzea, eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen birziklapena arautu ahal izateko txosten bat garatu da.
- Hondakinen arloko ingurumen-fiskalitateak euskal enpresentzat duen inpaktu ekonomikoa aztertu da.

4. PROIEKTU GILTZARRIA. FABRIKAZIO BERDEA

Azken urteetan, euskal industriak aurrerapen handia egin du jasangarritasunaren arloan, berotegi-efektuko gas-isuriak murriztuz, energia-kontsumoa kontrolatuz, hondakin arriskutsuen sorkuntza mugatuz... Dena den, oraindik bada egin beharreko lan garrantzitsua: enpresa-ehunak ondo ezagutu, barneratu eta aprobeixatu behar ditu jasangarritasunak lehiarako faktore gisa eskaintzen dituen aukerak.

**Ekonomia zirkularrak sortzen dituen aukerak
abiapuntutzat hartuta, euskal enpresen lehiakortasuna
sustatzea da 2020rako helburua.**

*Gaur egungo garapena,
plangintzaren arabera*



ALTUA

JARDUERAK

4.1 Prozesu hobetuak: Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren eguneraketa.	ERTAINA
4.2 Ekonomia zirkularreko plataforma.	ALTUA
4.3 Basque Ecodesign Center.	ALTUA
4.4 Negozio-eredu berriak.	ALTUA

PROIEKTUAREN EMAITZAK

- 2016ko Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eta hari atxikitako zerga-murrizketa onetsi eta ezarri da.
- Laguntza ekonomikoen bidez babestutako ekonomia zirkularra, ekodiseinua eta ekoberrikuntza frogatzeko 31 proiektu.
- Basque Ecodesign Hub (2016) erakundeak 35 pertsona prestatu ditu ekodiseinuaren esparruan.
- Basque Ecodesign Center-ek 20 jardunaldi tekniko egin ditu, eta 1.200 pertsona izan dira bertan (2012-2015).

5. PROIEKTU GILTZARRIA. ELIKADURA ZIRKULARRA

Gizarteak sortutako ingurumen-inpaktuaren zati garrantzitsu batek elikadura-katearekin lotutako prozesuetan du jatorria: ekoizpenean, eraldaketan, salmentan, berrerabilpenean, hondakinetan... Eusko Jaurlaritzak, elikadura-industriaren eragileekin batera, hainbat ekimen jarri ditu martxan elikadurarekin lotutako ingurumen-inpaktuak murrizteko.

Euskadiko elikaduraren balio-katea osatzen duten prozesuen ingurumen-alderdiak sustatzea da 2020rako helburua.

Gaur egungo garapena, plangintzaren arabera



ERTAINA

JARDUERAK

5.1 Komertzializazio-zirkuitu laburrak erraztea eta tokiko nekazaritza-produktuak bereiztea.	ALTUA
5.2 Elikagaien ekoizpen jasangarriari buruzko ikerketa-lerroak zehaztea eta horiei lehentasuna ematea.	ALTUA
5.3 Tokiko produktuak jantoki kolektiboetan txertatzeko esperientziak.	BAXUA
5.4 Euskadiko Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plana: FOPE.	ALTUA
5.5 Nirea ekimena.	ERTAINA

PROIEKTUAREN EMAITZAK

- 76/2016 Dekretua, maiatzaren 17koa, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzeko denaren argitalpena.
- Elikagaien ekoizpen jasangarriari buruzko Europako 8 proiektu partekatu.
- Tokiko produktuen politikak eta/edo klausulak betetzen dituzten 5 jantoki kolektibo.
- Euskadin Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plana (FOPE) ezarri da.
- 4 enpresa-talde atxiki dira Nirea tokiko produktuaren inguruko baterako erantzukizun-proiektura.

6. PROIEKTU GILTZARRIA. AZPIEGITURA BERDEAK

Azpiegitura berdea elkarrekin konektatutako gune naturalez osaturiko sare bat da. Hark oso ondorio onuragarriak eragiten ditu ingurumenaren babeserako, pertsonen bizi-kalitaterako eta hiri-garapenaren jasangarritasunerako, besteak beste. Europar Batasunak zehaztutakoarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzak azpiegitura berdeen kontzeptua txertatu nahi du Euskadiko lurralde-antolamenduko erremintetan eta gidalerroetan.

Hiri- eta landa-guneetan elkarrekin konektatuta dauden naturagunez osaturiko sare bat sortzea da 2020rako helburua.

Gaur egungo garapena, plangintzaren arabera



ALTUA

JARDUERAK

6.1 Azpiegitura berdeak LAGetan txertatzea.	ALTUA
6.2 Jasangarritasunaren esparruan txertatutako proiektu pilotuak abian jartzea.	ALTUA

PROIEKTUAREN EMAITZAK

- Azpiegitura Berdea txertatu da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak ikuskatzeko prozesu parte-hartzailean.
- 500 pertsonak eta 75 erakunde eta elkartek parte hartu dute LAGen berrikuspenerako prozesu parte-hartzailean.
- Eskualdean azpiegitura berdeko sare bat identifikatu eta irudikatzeko proposamen metodologiko bat egin da.

3. 75 jardueren jarraipena

3.1. Metodologia

3.1.1. Aurrekariak. 2015eko esperientzia pilotua

2015eko urrian, IV. IEPren lehen ezarpen-urtean lortutako aurrerapen-mailaren jarraipenerako lehen barne-jarduketa bat egin zen. Lehen jarduketa horren helburua IV. IEPk gaineratutako 75 jardueren ezarpen-maila identifikatzea eta modu kritikoan berrikustea izan zen. Jarraipen-metodologia bat doitzea eta entseatzea izan zen haren helburua, hurrengo ekitaldietan orraztu eta errepikatu ahal izateko, horiek nahitaezko izaera dutenean (2016an eta 2018an), hain zuzen ere.

Esperientzia pilotuaren bitartez, Ingurumen Sailburuordetzak identifikazio eta kontsulta bat egin zien (jardueraz jarduera) profil teknikoa zuten eta, beren ingurumen arloko erantzukizunak zirela-eta, jarduera-eremu bakoitzarekin zuzenean lotuta zeuden pertsonari. Horiek urtean zehar garatutako jardueri eta etorkizunera aurreikusitako jardueri buruzko informazio nahikoa izan behar zuten, jarduerok objektibotasunez eta perspektibaz baloratzeko gaitasuna izateaz gain. Azken finean, «adituen irizpidea» deituriko metodologiaren modalitate azkar eta praktikoa aplikatzea da helburua.

Kontsulta idatziz egin zen, jarduera bakoitzerako prestatutako testuinguruko informazioa barne hartzen zuen galdeketa batean (fitxa deskribatzailea) eta galdera-sorta batean oinarrituz –horietan, jarduera bakoitzaren egikaritze-mailaren balorazio justifikatua eta arrazoitua egin zezala eskatzen zitzaion galdetutako pertsonari–.

Jarraipen-jarduera egin ostean, erabilitako metodologiaren indar eta ahulguneen hausnarketa kritikoa egiteari ekin zitzaion, eta honako ondorio hauek atera ziren:

2. Taula 2015eko jarraipen-metodologiaren ebaluazio kritikoa


	Mantendu eta finkatu beharreko alderdiak	Hobetu beharreko alderdiak
Jarraipen-informazioa lortzeko modalitatea	Jasotako informazioaren kalitatea eta gaurkotasuna direla-eta, «adituen irizpidea» metodologiaren aplikazioa abiapuntuko informazioa lortzeko oinarri gisa mantentzea.	Kontsultatutako aditu kopuru handia dela eta, abiapuntuko informazio gordina arazteko etapa bat gehitu behar da metodologiara, estiloak homogeneizatu eta jarduera homogeneoetako irizpide-inkoherentziak ebazteko, esaterako.
Galdeketa	Abiapuntuko galdera-bateria mantentzea, behar bezala egokitzen delako eta jarraipenaren xede diren alderdiak oso modu sinplean jasotzen dituelako.	Galdeketa arintzea, hura betetzeko behar den denbora murriztuz. Horretarako, formatua aldatu eta jarduera bakoitzaren deskripzio-fitxako informazioa kendu beharko da, adituek jardueraren testuinguruko

	Mantendu eta finkatu beharreko alderdiak	Hobetu beharreko alderdiak
		informazio nahikoa baitute eta hura ondo ezagutzen baitute.
Solaskide adituen identifikazioa	Solaskide adituen panel zabal eta anitz bat mantentzea. Solaskide horiek profil eta jatorri askotakoak izango dira, sektoreari buruzko informazio eguneratua izango dute, eta irismen zabaleko ikuspuntu osagarriak izango dituzte, ahal izanez gero.	2015ean lortutako erantzunen kasuistika oinarritzat hartuta, solaskide adituen zerrenda berrikustea, gauzatu ez zuten solaskideak ordeztu eta partzialki gauzatu zutenen izendapena doitzeko helburuarekin.

3.1.2. 2016ko jarraipenean aplikatutako metodologia

IV. IEPren 2016ko jarraipena egiteko diseinatu den metodologiak 2015eko esperientzia pilotuan identifikatutako hobetu beharreko alderdiak gaineratzen ditu dagoeneko. Hark hurrengo irudian eskematizatzen eta deskribatzen diren faseak ditu.

Figura 1. 2016ko jarraipen-metodologia



1. fasea: Adituen panela izendatzea. 2016ko jarraipenerako adituen panela («solaskide» ere deitzen zaie txosten honen testuinguruan) 2015eko jarraipen-jarduera pilotuan lortutako erantzunen kasuistika oinarritzat hartuta konfiguratu zen.

Bilatzen zen aditu-profil egokiena honako hau zen: ingurumen arloko pertsona profesionala, IEPk jorrotutako gairen batean aditua, bere *expertise* arloko informazioa duena, eta euskal sektore publikoak bere ezagutza-eremuan egiten dituen jarduerak eta ekimenak ondo ezagutzen dituen, jarduerak modu justifikatuan, objektibotasunez eta sen kritikoz informatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna duena.

Azkenean, panela euskal sektore publikoko 22 adituk osatu zuten; horiek profil teknikoa dute batez ere, eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, sozietate, erakunde eta fundaziori dagozkie: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (Ihobe); Uraren Euskal Agentzia (URA); Energiaren Euskal Erakundea (EEE); Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua; Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuordetza; Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza; Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (Elika); eta landa, itsasertz eta elikagaien garapenerako Hazi Fundazioa.

2. fasea: Galdeketa pertsonalizatuen prestakuntza. Hurrengo Taulan adierazitako galderamultzoa gaineratzen zuten galdeketa pertsonalizatuak prestatu ziren, baita horiek betetzeko jarraibideak ere. Era berean, 2015eko jarraipen-jarduera pilotuan jarduera bakoitzerako lortutako jarraipen-erantzunak gaineratu ziren galdeketa, erreferentzia gisa.

3. Koadroa Galdeketa galderak (berdinak jarduera guztietarako)

- **Jarraipeneko solaskideak (jardueraren jarraipena JAKINARAZTEAZ eta BALORATZEAZ arduratu direnak)**
- **Jarraipen-data**
- **2015-2016ko jardueraren ezarpen-maila modu globalean eta kualitatiboan ebaluatzea (bere ustez)**
- **Jarduera MARTXAN EDO AMAITUTA BADAGO, ADIERAZI:**
 - Zer egin da 2015ean eta 2016an?
 - Ekintza horrekin lotuta egitea aurreikusten diren hurrengo eginkizunak
 - Gutxi gorabeherako ezarpen-ehunekoa
- **Jarduera GAUZATZEN ARI EZ BADA, ADIERAZI:**
 - Zergatik?
 - Hurrengo ekitaldietan ezartzea aurreikusten da? Noiz?
- **Oharrak. Jardueraren gaur egungo formulazioa partekatzen EZ baduzu, gaineratu jardueraren idazkera PROPOSAMEN bat, zure iritziarekin bat etorriz.**

Jarduera bakoitzari buruzko iritzia eskatu zitzaizen solaskideen kopurua bat eta lau artekoa izan zen, jarduera bakoitzaren konplexutasunaren eta zabaltasunaren arabera. Jarduera bakoitzerako solaskide bat baino gehiago izendatzeko modua sistematikoki egin zen jarduera konplexuenen edo irismen handieneko jardueren kasuan, betiere ikuspuntu-aniztasuna eta erantzunen kontraste egokia lortzeko helburuarekin.

3. fasea. Galdeketak bete eta ekarpenak jasotzea. Aditu guztien bi herenek, gutxi gorabehera, idatziz erantzun zuten galdeketa, norbere bitartekoak erabiliz, eta beste herenak, berriz, ahoz egitea erabaki zuen, lantaldearekin elkarrizketa hitzartu ostean. Lortutako erantzun-maila oso altua izan zen, Ingurumen Sailburuordetzaren zuzendaritza-taldeak informazioa eskatzeko orduan egindako lanari esker.

Hurrengo jarraipen-ekitaldietan metodologia hobetzeko hausnarketa. Jarraipen-balorazioak egin dituen aditu kopuru handia eta jorratutako gaien aniztasuna eta konplexutasuna direla eta, balorazioak egiteko orduan (ezarpen-mailaren inguruko balorazioak batez ere, horiek izaera erdi-kuantitatiboa baitute) irizpide komunak aplikatzea eta mantentzea izan da erronka metodologiko nagusietako bat. Galdeketari erantzuteko lantaldearen laguntza eskatu duten adituen erantzunetan horien dispertsio-maila murriztu egin dela ikusi da, horien alderagarritasun estatistikoa hobetuz. Lantaldeak lagundutako erantzunetan (banaka erantzun direnekin alderatuta) nabarmendu beharreko beste onura bat gaia jorratzeko orduan mantendu den ikuspegiaren uniformetasun handiagoa izan da, baita estiloari dagokionez ere. Horrenbestez, hurrengo jarraipen-ekitaldietan lantaldeak adituei eskainitako laguntza modu sistematikoan egin dadila gomendatzen da.

4. fasea. Emaitzak aztertu eta txertatzea. Ekarpene guztiak jaso ostean, lantaldeak horiek aztertu eta beste solaskide batzuek jarduera berari dagokionez egindakoak txertatu zituen. Zenbakizko ebaluazioak txertatzeko, adibidez, batez bestekoaren kalkulua hartu zen irizpide gisa.


3.1.3. Jarraipenerako erabilitako parametroak eta irizpideak

Jardueren jarraipena egiteko bi parametro hauek erabili dira: **ezarpen-ehunekoa** eta **aurrerapen-maila**.

Ezarpen-ehunekoa jardueraren gutxi gorabeherako egikaritze-egoera islatzen duen informazio erdi-kuantitatiboa da, eta % 0 (exekuzioa nulua denean) eta % 100 (exekuzioa erabatekoa denean) artekoa izan daiteke.

Aurrerapen-maila, berriz, jarduera bakoitzaren bilakaera baloratzen duen informazio kualitatiboa da, haren ezarpen eraginkorrerako helburuak eta aurreikuspenak aintzat hartuta. Aurrerapen-mailaren arabera, jarduerak 6 kategoriatan sailkatzen dira. Horiek hurrengo Irudian islatzen dira, eta «nulua» (kasurik okerreanean) eta «amaitutako jarduera» (kasurik onuragarrienean) kategorien artekoak izan daitezke.

7. Irudia. Jarraipen-parametroen eskalak



Bi parametro horiek eskaintzen duten informazioa ez da erredundantea, osagarria baizik. Horrenbestez, ezarpen-ehuneko altuko jarduera batek aurrerapen-maila baxuko balorazioa izan dezake, esaterako, jarraipena egin den egunean hark amaituta egon behar bazuen.


Era berean, ezarpen-ehuneko baxuko jarduera batek aurrerapen-maila ona lor dezake, jarraipena egin den egunean haren aurrerapen-maila aurreikusitakora egokitzen bada. Halere, jardueren ezarpen-plangintzak ez du zertan lineala izan behar.

Hori dela eta, bi parametroak (ezarpen-ehunekoa eta aurrerapen-maila) beharrezkoak dira jardueren jarraipena modu egokian baloratzeko, betiere informazio osagarria eskainiz. Hurrengo irudian, adibide argitzaile bat eskaintzen da.

8. Irudia. Jarraipen-irizpideen aplikazioari dagokion adibide argitzailea

2014ko jarraipena >>

Helburua: % 100, 2020an



IV. Ingurumen Esparru Programa 2020

- Jardueraren benetako bilakaera
- - -●- - - Jardueraren aurreikusitako/panifikatutako bilakaera


3.2. Emaitzak

Dokumentu honetako 2. Eranskinean, IV. IEPk barne hartzen dituen 75 jarduera horietako bakoitzaren jarraipenari buruzko informazio xehatua jasotzen da. Dokumentu horretan, bi jarraipen-parametroak ebaluatu dira jarduera bakoitzerako, ezarpen-ehunekoa eta aurrerapen-maila, alegia. Hurrengo epigrafeetan, ondoriozko jarraipen-emaitza globalak agertzen dira, jarduteko-lerro, helburu estrategiko eta, azkenik, IV. IEP osoaren guztizko partzialak kalkulatu ostean.

3.2.1. Ezarpen-ehunekoa

IV. IEPren ezarpen-ehunekoa % 54koa zen 2016. urte amaieran (ikus irudiko datuak eta erantsitako taulak).

9. Irudia. IV. IEP. Ezarpen-ehunekoaren laburpena



3. Taula. IV. IEP. Ezarpen-ehunekoaren laburpena

IV. IEP	Jarduerak, guztira (ezarpenaren %)	2017an lehentasuna izango duten jarduerak (ezarpenaren %)
1HE. Gure KAPITAL NATURALA babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten ZERBITZUAK gerizatzeko	42	52
2HE. Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono-isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea	72	75
3HE. Gure herritarren OSASUNA eta ONGIZATEA sustatzea eta babestea	63	63
4HE Lurraldearen jasangarritasuna handitzea	38	44
5HE. Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuz	42	48
6HE. Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea	65	65
IV. IEP	54	58

IEP programak barne hartzen dituen jardueren % 54ko ezarpen globala modu positiboan baloratzen da oro har, hark duen indarraldiaren heren bat bakarrik igaro baita, eta, beraz, oraindik lau urte geratzen baitira 2020ko horizontera iristeko.

IV. IEPko jardueren % 70 lehentasuneko jardueretzat jo ziren, eta, beraz, horiei egikaritze-horizonte goiztiarra ezarri zitzairen. Horizonte hori 2017. urtean finkatu zen, hau da, IV. IEPren indarraldi osoaren erdia (3 urte, 2015etik 2017ra, biak barne).

Jarduera-multzo horren ezarpen-ehunekoa % 58koa izan da 2016. urte amaieran; horrenbestez, helburuak guztiz lortzeko, hau da, % 100era iristeko falta den gainerako jarduera guztien garapenari dagokion % 42a, 2017ko urte naturalean gauzatu beharko litzateke. Hori dela eta, jarduera-multzo horren kasuan, 2017. urte amaierarako zehaztu diren anbizio handiko helburuak lortzeko bikoiztu egin beharko lirateke 2015etik orain arte egindako ahaleginak eta intentsitatea.

Helburu estrategikoei atxikitako jardueren ezarpen-ehunekoa oso bestelakoa da kasuan kasuko jarduera-tipologiaren eta helburu estrategikoaren arabera. Oro har, ezarpen-maila handienak Euskadin umotu eta finkatutako jardueri dagozkie, horiek lidergo eta erakunde eragile garbiak izan baitituzte, baita baliabide eta aurrekontuen zuzkidura esanguratsuak ere. Jarduera horien adibideak atxiki dira 2., 3. eta 6. Helburu Estrategikoetara. Horiek hainbat gairi buruzkoak dira, hala nola, baliabideen erabilerarekin lotutako eraginkortasunari, klima-aldaketaren kontrako borrokari eta baliabideen kalitatea hobetzeari buruzkoak.

Bestalde, ideia eta joera berriekin lotutako jardueren kasuan ezarpen-maila baxuagoa dela ikusi dugu, horiek garapen-egoera baxuagoa izan dutela, alegia. Izan ere, horiek ez dira modu garbian bereganatu edo gauzatu, eta horietako askok ez dute erakunde eragile sendorik. Mota horretako jarduerak 4. eta 5. Helburu Estrategikoetan pilatu ohi dira, eta horrek kaltetu egiten du horien amaierako jarraipen-emitza.

Horregatik guztiatik, ideia eta joera berriekin lotutako jarduerak nabarmen sustatu beharko liratekeela ondorioztatu da, horiek garapen-maila baxuagoan baitaude, eta, horretarako, horien ezarpen-erantzukizuna horien trakzioa eta lidergoa bereganatzeko moduko erakundeei esleitu beharko litzaieke.

3.2.2. Aurrerapen-maila

Jardueren aurrerapen-mailari dagokionez, hurrengo Taulan datuen laburpena jasotzen da.

4. Taula. IV. IEP. Aurrerapen-mailaren laburpena

IV. IEP	Jarduerak, guztira				2017an			
					lehenetasuna izango duten jarduerak			
1HE. Gure KAPITAL NATURALA babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten ZERBITZUAK gerizatzeke	16	9	6	1	9	6	2	1
2HE. Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono-isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea	14	13	1	0	13	12	1	0
3HE. Gure herritarren OSASUNA eta ONGIZATEA sustatzea eta babestea	7	7	0	0	5	5	0	0
4HE Lurraldearen jasangarritasuna handitzea	16	7	8	1	12	5	7	0
5HE. Politiken koherentzia bermatzea, ingurumenaren integrazioa areagotuz	18	9	5	4	10	6	3	1
6HE. Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea	4	3	0	1	4	3	0	1
IV. IEP	75	48	20	7	53	37	13	3
	% 100	% 64	% 27	% 9	% 100	% 70	% 25	% 6

Jardueren aurrerapen-mailari dagokionez, horien ia bi herenak (% 64) modu egokian garatzen direla esan behar da, aurreikuspenen arabera, eta horietako hiru amaituta daude dagoeneko. Jarduera-multzo horren kasuan, amaitu eta helburuak lortu arte erritmo egokia mantentzen jarraitzea ahalbidetuko duen arreta eta baliabideen maila mantentzea da lehenetasuna.

Bestalde, jardueren laurden batek baino zertxobait gehiagok (% 27) aurrera egiteko zailtasun gehiago dituztela frogatu da, aurreikusitako erritmoaren azpitik. Jarduera-multzo horrek sustapen handiagoa behar du, horien garapen-maila gorena berreskuratzeko.

Azkenik, jardueren % 9 helburuetatik oso urrun garatzen ari dira, % 10eko edo hortik beherako ezarpen-mailekin. Jarduera horien kasuan, horien indarraldi- eta interes-maila berrebaluatu beharko da, eta hura konfirmatuz gero, nabarmen sustatu beharko dira, galdutako denbora berreskuratzeko.

3.2.3. Egindako balorazioen laburpena

Hurrengo taulan, 2020rako IV. IEPren 75 jarduerak jasotzen dira, blokeetan sailkatuta, horien aurrerapen-mailak izan dituen emaitzen arabera.

5. Taula. Jardueren inguruko balorazioen laburpena

Zenbakia	Jarduera	Aurrerapena	%	H
1. Multzoa. AMAITUTAKO JARDUERAK				
1-5HE	2020rako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia elaboratzea, klima-aldaketa kontuan hartuko duena, eskumena duten administrazioen artean.	!	<u>100</u>	2017
2-17HE	2030erako Klima Aldaketarako Euskal Estrategia elaboratzea, hark markatuko baitu hurrengo urteetan jarraitu beharreko ekintza.	!	<u>100</u>	2017
2-21HE	Ekodiseinua potentziaztea baliabideen kontsumoa murrizteko eta hondakinen sorkuntza prebenitzeko tresna gisa, aldi berean, produktuen funtzionaltasuna (zerbitzu-eskaintza), iraunkortasuna eta birziklagarritasuna handituz.	!	<u>100</u>	2017
2. Multzoa. MODU EGOKIAN GARATZEN ARI DIREN JARDUERAK				
1-1HE	Plangintza eta arautegi sektorial desberdinak berrikustea eta lerrokatzea, ekosistemak, haien fluxuak eta zerbitzuak (bereziki, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-politikan eta lurraldea antolatzekeo plangintza-politikan) kontserbatzea ahalbidetuko duten ingurumen-aldagaiak gehitzeko. Garrantzi bereziko kasu bat Natura 2000 Sarea eta ekosistemen zerbitzuak integratzea da.		40	2020
1-2HE	Biodibertsitatea kontserbatzeko eta kudeatzeko politikan eskumena duten administrazioen arteko koordinazio operatiboa sendotzea.		60	2017
1-7HE	Euskadiko kapital naturalaren egoerari buruzko informazio-sistema bat ezartzea. Sistemak bide eman behar du habitaten kontserbazio-egoera objektiboki ezagutzeko, berorien segimendua egin eta, erantzun gisa, benetako premiekin bat datozen esku-hartze planak artikulatzeko.		60	2017
1-9HE	Lurralde-antolamendu adimentsu baten ezarketa bultzatzea, populazio-dentsitate handiagoak saritu ditzan, eta erabileren konbinazioa (lana, aisialdia, etxebizitza) eta lurzoru-kontsumoaren optimizazioa indar ditzan, lurzoru horren berrerabilpena eta lehengoratztea lehenetsiz.		40	2020
1-11HE	Azpiegitura berdeen kontzeptua gehitzea gure Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan.		80	2017
1-12HE	Ekosistema-zerbitzuen ebaluazio- eta balorazio-sistemak indartzea eta gehitzea.		40	2017
1-14HE	Lurraldearen kudeaketan (batez ere, lehen sektorean eta lurralde-plangintza egiterakoan) biodibertsitatearen ikuspuntutik lagunkoia diren eguneroko praktiken ezarketa bultzatzea.		40	2020
1-15HE	Ingurune naturalaren arloan, herritarrei zuzendutako informazioa, kontzientziazioa eta hezkuntza areagotzea, ladia gure etxeetara eta gure herritarrei hurbilduz.		70	2017
2-18HE	Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna indartzea maila guztietan (etxebizitza eta eraikinak, mugikortasuna, industria, zerbitzuak, lehen sektorea, herri-administrazioa eta produktuen kontsumoa) eta energia berriztagarrien sorkuntza bultzatzea.		65	2017

Zenbakia	Jarduera	Aurrerapena	%	H
2-19HE	Herritarren eta enpresen klima-aldaketarekiko erantzukidetasuna indartzea (garraio publikoa eta partekatua potentziatzea, energia-eraginkortasun handiagoko produktuen kontsumoa, produktu eta zerbitzuen ekoetiketak, borondatezko konpromiso-sistemak mesedetzea eta isurketak konpentsatzea).		60	2017
2-20HE	Espezializazio adimentsuaren estrategia garatzen eta ezartzen laguntzea, Euskadin ekoberrikuntza eta ekoeraginkortasuna bultzatzen duten programen bitartez fabrikazio aurreraturantz urratsak egiteko lehentasunaren barruan.		80	2017
2-22HE	Produktuen eta prozesuen enpresako ekoberrikuntza bultzatzea, ingurumenak merkatu globalean sortzen dituen merkatu-aukerak aprobetxatzeko (enplegu berdea).		80	2017
2-24HE	Isurketak eta lehengai naturalen erabilpena zigortzen duten eta, aldiz, berrerabilpena, birziklatzea eta balioztatzea saritzen duten tresna ekonomikoak ezartzea, adibidez, produktu sekundarioen merkatuak artikulatzea erraztuz.		50	2020
2-25HE	Baliabideak bizi-ziklo osoan eraginkortasun handiagoaz –bereziki zikloaren amaieran hondakinak aprobetxatzen direla- erabiliko dituen etxegintza eta eraikuntza sustatzea.		80	2017
2-26HE	Ekintzailatza sustatzea, zikloen itxiera eta ekosistema industrialak mesedetzen dituzten negozio-eredu berrien bitartez.		95	2017
2-27HE	Negozio-eredu berrien bitartez ekintzailatza sustatzea, ekintzaileei informazioa eta prestakuntza emanez, ingurumenak eskaintzen dituen enpresa-aukerei buruz.		80	2017
2-28HE	Lurraldean enpresak aurkitzeko azpiegiturak optimizatzea.		40	2017
2-29HE	Udalerrietan berrikuntzei eta jardunbide egokiei laguntzeko ekimenak handitzea.		60	2017
2-30HE	Lurraldearen garapen jasangarriaren esparruan lankidetzak-sareak sendotzea.		80	2017
3-31HE	Azaleko (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lurpeko eta eremu babestuetako (bainatzeko tokiak, hartuneak, nitratoekiko eremu zaurgarriak) ur-masen egoera ona lortzea.		80	2017
3-32HE	Kalitateko uraren eskariari erantzutea, jasangarritasun, aurrezpen eta eraginkortasun irizpideen arabera, emari ekologikoen erregimenarekin bateragarri eginez eta ur-eskaria kudeatzeko tresnak potentziatuz.		80	2017
3-33HE	Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat datorren airearen kalitatea (kanpoko eta barnekoa) ziurtatzea.		70	2017
3-34HE	Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz.		70	2017
3-35HE	Muturreko klima-fenomenoen ondorioak galga jartzea (lehorteak, uholdeak, bero-boladak...).		50	2020
3-36HE	Osasunerako ingurumen-arriskuen monitorizazioa, prebentzioa eta kudeaketa indartzea, ingurumen-informazioko sistemak hobetuz.		50	2017

Zenbakia	Jarduera	Aurrerapena	%	H
3-37HE	Ingurumen-kalitatearen kostu/onura ekonomikoa eta soziala ebaluatzea, osasun-kostuen handitzeak/aurrezpenak kontuan hartuta.		50	2020
4-38HE	Kontsumitzailea informatzeko sistemak garatzea.		80	2017
4-39HE	Produktuen ekoetiketak bultzatzea.		40	2020
4-40HE	Kontsumo-jokabide arduratsuak mesedetzea.		35	2020
4-42HE	Azpiegitura berdeak globalki planifikatzea, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideekin eta lurraldeko eta sektoreko planekin bat etorririk.		80	2017
4-46HE	Garraio publikoa eta partekatua sustatzea, pertsonen eta salerosgaien mugikortasuna optimizatzeko IKTak baliatzen dituen garraio multimodal adimentsua bultzatuz eta energia garbiko lekualdatze-moduak mesedetuz.		70	2017
4-47HE	Garraioen eskaera kudeatzeko sistemen ezarketan aurrera egitea.		60	2017
4-51HE	Eskolako Agenda 21en eta Tokiko Agenda 21en arteko koordinazioa handitzea.		65	2017
5-54HE	Proiektu Giltzarriak bultzatzea, ingurumenaren aldagaia sailen artean integratzeko tresna gisa. Aldi honetan, 6 proiektu hasiko dira: 1. Administrazio eredugarria ingurumenaren aldetik; 2. Lurralde osasungarria; 3. Ingurumen-fiskalitatea; 4. Fabrikazio berdea; 5. Elikadura zirkularra; 6. Azpiegitura berdeak.		70	2017
5-59HE	Ekintza publikoaren ingurumen-aztarna kuantifikatzen eta minimizatzen aurrera egitea maila guztietan.		65	2017
5-60HE	Erosketa publiko berdea sustatzea ingurumen-irizpideak gehi ditzaketen kapituluetan, bereziki, azpiegituren plangintzan eta garapenean, etxegintzan eta ekipamenduetan, ibilgailu eta mugikortasunean, eta energiaren eta hornigaiaren erabileran.		80	2017
5-62HE	IKTak eta gizarte-sareak baliatzen dituzten parte hartzeko sistema dinamikoak eta malguak gehitzea, erabakiak hartzeko orduan informazio garrantzitsuen fluxu eraginkorra egon dadin.		35	2020
5-63HE	Ingurumenari eta hark herritarren ongizatean duen eraginari buruzko ezagupenen oinarria hobetzea.		55	2017
5-66HE	Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza Estrategia elaboratzea.		90	2020
5-67HE	Agenda 21-i bultzada ematea Lanbide Heziketako zentroetan eta Eskolako Agenda 21ekin koordinatzea.		40	2017
5-68HE	Euskal gizartearen ingurumen-heziketaren mailari buruzko diagnostiko baten formulazioan aurrera egitea eta, bereziki, unibertsitateko irakaskuntza guztietan jasangarritasunaren ikuspegia gehitzea.		50	2017
5-71HE	Prestakuntza-ahalmenak garatzea ingurumen-gaietan.		20	2020

Zenbakia	Jarduera	Aurrerapena	%	H
6-72HE	Euskadi nazioartean proiektatzeko politikan ingurumena integratzea, eta nazioartekotzeari bultzada handiena ematen dioten sailekin eta erakundeekin lankidetzan aritzea.		90	2017
6-73HE	Nazioarte mailan eragile publiko eta pribatuek egindako lana sostengatzea eta zabaltzea.		80	2017
6-74HE	Ingurumenari buruzko foro globaletan parte hartzeko erraztasunak ematea, Euskadi munduan ezagutzera emateko, euskal herritarren eta enpresen interesak aldezteko, eta mundu zuzenago eta orekatuago bat eraikitzen laguntzeko (ICLEI, Jasangarritasunerako Tokiko Gobernuen Sarea edo Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualde Gobernuen Sarea bezalako sareen bitartez).		80	2017
3. Multzoa. AURREIKUSITAKOIA BAINO GUTXIAGO GARATZEN ARI DIREN JARDUERAK				
1-3HE	Eskumenak dituzten eragile guztien artean ikuskapen koordinatu bat potentziatzea.		25	2020
1-6HE	Ingurune naturalaren kudeaketa-sistema moldagarriak ezartzea: eskura daitekeen ezagutza onena erabiltzea neurriak aplikatzeko, emaitzak berrikusi eta ebaluatzeko, zuzentzeko eta birdoitzeko.		20	2020
1-8HE	Espezie mehatxatuen kontserbazio-egoeraren segimendu eta azterketa mekanismoak hobetzea eta indartzea, eta haien Kudeaketa Planaren onarpena bultzatzea.		40	2017
1-10HE	Ekosistemen zerbitzuak indartzea, eremu degradatuak lehengoratzeko.		20	2017
1-13HE	Lehen sektoreko laguntza ekonomikoen sistema nagusiek ekosistemen zerbitzuetan dituzten inpaktuak identifikatzea, dibertsitate biologikoaren kontserbazio eta erabilpen jasangarrirako pizgarri positiboak aplikatzeko lana areagotuz eta, pixkanaka, egon litezkeen pizgarri kaltegarriak ezabatuz.		25	2020
1-16HE	Habitata berrereskuratzeko jardunbide egokien eskuliburuak prestatzea.		20	2020
2-23HE	Teknologia garbien eta industriako isurpenei buruzko Zuzentzarauak ezarritako eskura dauden teknologia onenen erabilpena bultzatzea.		35	2017
4-41HE	Tokiko kontsumoa, zirkuitu laburrak eta elikadurako zikloa ixtea bultzatzea.		30	2017
4-44HE	Kapital naturalari eta haren erabilera eraginkorrari buruzko informazioa ematea udalerriei.		35	2017
4-45HE	Motorizatu gabeko mugikortasuna mesedetzea, oinez eta bizikletaz eginiko joan-etorriak bultzatuz.		20	2017
4-48HE	Hiri-ehunak biziberritzen laguntzea, enpresa-eredu jasangarriago batera, eraikin-parke eraginkorrago batera, eta herritarren harremanetarako kalitateko espazio publiko batera egin beharreko trantsizioa mesedetuz.		15	2017
4-49HE	Aurrezte eta eraginkortasun jokabideak mesedetzea etxean eta hiri-enpresetan.		30	2017
4-50HE	Prestakuntza sustatzea, eta sentsibilizazio eta informazio kanpainak egitea, hiriko karbono-aztarna murrizteko.		15	2020

Zenbakia	Jarduera	Aurrerapena	%	H
4-52HE	Toki-administrazioaren eredugarritasuna bultzatzea, jasangarritasunean.		20	2017
4-53HE	Herritarren parte-hartze prozesuak indartzea udalerrri-mailan.		20	2017
5-55HE	Politika publiko guztien eta, bereziki, aurrekontu publikoen azpian datzan ingurumen-kontakizuna agerira ateratzea.		20	2020
5-56HE	Tresna berri xume eta berritzaileen erabilpena gehitzea, beroriei esker sareko lankidetzak mesedetuko baita IEP bultzatzeko erantzukizuna duten pertsona arduradunen artean.		20	2020
5-61HE	Ingurumen-kudeaketako izapideak eta prozedurak murriztu, erraztu eta azkartzea.		50	2017
5-64HE	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen ingurumen arloko ikerketa-ahaleginak koordinatu, partekatu eta sustatzea, eta lortutako aurrerapenak ingurumen-politika publikoetara transferitzea. Horri buruz, arreta berezia jarri behar da biodibertsitatearen balorazioan, ingurumen-baldintzek osasunean duten inpaktuetan, eta ingurumenaren arloan gero eta kezka handiagoa pizten duten eremu berrien ebaluazioan eta kudeaketan (kutsadura akustikoa, luminikoa, elektromagnetikoa, substantzia berriak...).		50	2017
5-65HE	Datuak biltzea, kudeatzea eta bateratzea sinplifikatu, arrazionalizatu eta modernizatuko duen ingurumen-informazio sistema partekatu bat bultzatzea, gai berriak gehitzeko bide ematen duela.		15	2017
5-70HE	Ingurumen-trebakuntzan aurrera egitea, antzeko interesak eta beharrezkoak dituzten pertsona- eta talde-segmentuen arabera, betiere pertsonen bizi osoan zeharreko trebakuntza aintzat harturik.		20	2020
4. Multzoa. AURREIKUSITAKOIA BAINO NABARMEN GUTXIAGO GARATZEN ARI DIREN JARDUERAK				
1-4HE	Ingurumen arloko Administrazioaren esku-hartzeen kostu eta onuren kuantifikazioa integratzea.		10	2017
4-43HE	Udalerrri arteko koordinazioa mesedetzea, azpiegitura berde partekatuak eraikitzeke.		10	2020
5-57HE	Ingurumen-politikaren segimendua egiteko koordinazio teknikorako mekanismoak sortzea Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailen artean.		10	2017
5-58HE	Faktore sozioekonomikoen eta ingurumen arloko arteko interakzioa gehitzen jarraitzea politiken <i>ex ante</i> eta <i>ex post</i> ebaluazioetan.		5	2020
5-69HE	IKTak eta sareko lana ahalik eta gehien baliatzea, ingurumen-trebakuntzako sistema berritzaileak bultzatzeko.		5	2020
6-75HE	Gure gazteriak parte har dezan sustatzea jasangarritasunean hezteko eta hura bultzatzeko programetan.		10	2017

4. Laburpena, ondorioak eta gomendioak

2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa 2014ko abenduaren 2ko Gobernu Kontseiluan onartu zen. Euskal politika publikoak ingurumenaren eta garapen jasangarriaren arloetan hedatzea da haren helburua. Dokumentu estrategiko gisa, haren prestakuntza- eta jarraipen-prozesua Lehendakartzak koordinatu eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak sustatzen du.

Dokumentu hau 2020rako IV. IEPren bi urtean behingo lehen jarraipen-txostena da, eta hura osatzen duten 75 jardueren eta 6 Proiektu Giltzarrien aurrerapen-maila jasotzen du. Dokumentu hau legeak hala behartzen duelako idatzi da, IEPren izaera estrategikoa dela eta.

2020rako IV. IEPko 75 jarduerak ingurumena hobetzea dute helburu, eta Ingurumen Sailburuordetzari dagokio, batik bat, horiek gauzatzea; 6 Proiektu Giltzarriek, berriz, zeharkako izaera dute, eta ingurumena beste gobernu-eremu batzuetan azpimarratzea dute helburu; horregatik, baterako lidergoa behar dute ezarri ahal izateko.

6 Proiektu Giltzarrien jarraipen-emaitzak

2020rako Ingurumen Esparru Programak barne hartzen dituen Proiektu Giltzarrien indarraldiko lehen bi urteetan zehar aurrez zehaztutako honako helburu nagusi hauek betetzea lortu da:

- Lankidetzeta-plataformak sortu eta sustatu dira ingurumen arloko sailen artean. Proiektu Giltzarriak garatzeko orduan, 15 Zuzendaritza eta sozietate publikotako 60 pertsonak parte hartu dute.
- Hainbat Proiektu Giltzarritan garatu den ingurumen eta osasun, fiskalitate, lurralde-plangintza, fabrikazio, elikadura... arloetako lana argitu, planifikatu eta egituratu da. Lehen, lan hori modu isolatuan eta partzialki garatzen zen, ikuspegi bateraturik gabe eta lehendik zeuden sinergiak aprobetxatu gabe.
- Emaitza nabarmenak izan dituzten (dekretuak, prestakuntza-ikastaroak, txosten teknikoak, diru-laguntzak, kenkariak) ingurumen arloko 24 ekimen jarri dira martxan. Esanguratsuenen artean, Eusko Jaurlaritzaren Energia Jasangarritasunari buruzko Dekretua onartzea ahalbidetu da -hark % 25 murriztuko du administrazio horren eraikinen energia-gastua-, Basque Ecodesign Center-eko HUB-ean 35 pertsonari eskaini zaie prestakuntza, eta Euskadin Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plana jarri da martxan.

Ingurumen Esparru Programaren 2020ko horizonteari dagokionez, Proiektu Giltzarrien esparruko lana honako alderdi hauetan oinarrituko da:

- **Ekimenen garapenarekin jarraitzea.** Ekimen horietako asko 2020ko denbora-horizontearekin diseinatu dira, eta, beraz, oraindik ere lan handia dago egiteko.

- **Ekimen berriak sortu eta/edo lehendik daudenak egokitzea eta berriz bideratzea.** Proiektu Giltzarriak lan-eremu biziak dira eta erronka berrietara egoki daitezke. Zentzu horretan, horiek kudeatzen dituzten sailek ekimen berriak eraiki edo lehendik daudenak egokitu beharko dituzte, gero eta gehiago aldatzen ari den eta emaitzetan oinarritzen den ingurunean sor daitezkeen premiei erantzuteko helburuarekin.
- **Adierazleak zehaztea.** 2017ko talde eragileen bileretako lehentasun nagusietako bat inpaktu-adierazleak eraikitzea izango da, horien bitartez, esku-hartzeak ingurumenaren egoeran, bizi-kalitatean, osasunean, ekonomian eta abarretan izango duen eragina neurtu ahal izango baita. Horrez gain, emaitzen adierazleei dagokionez lan egingo da, esku-hartzearen egikaritze-maila zehaztasunez islatzeko. Era berean, ingurumenak Euskadiko gizarte- eta ekonomia-garapenean duen ekarpena islatuko duten funtsezko adierazleen koadro bat egingo da.
- **Komunikazioa sustatzea.** 2016an zehar 2 komunikazio-bilera egin dira, 2017. urtetik aurrera, Proiektu Giltzarrietan egindako lan teknikoak sozializatzea eta azpimarratzea ahalbidetuko duten komunikazio-jarduerak sustatzeko.
- **Sailen arteko lana hobetzea.** Proiektu Giltzarriak erreferente bat dira administrazio-mailako gobernantzari eta transbertsalizazioari dagokionez, baina oraindik ere nabarmen egin daiteke hobera sailen arteko lanaren eraginkortasunari dagokionez (negoziazio-prozesuak bizkortu, akordioak egin, aurrekontu partekatuak, diziplinarteko talde teknikoak...). Hemendik 2020ra, taldeak dinamizatzeko eta coaching-erako hainbat teknika berritzaile ezarriko dira talde eragileetan, eta horiek sailen arteko talde teknikoek eta politikoek emaitzak eta etekina hobetuko dituzte.

75 jardueren jarraipen-emaitzak

Honako hauek izan dira programaren indarraldiko lehen bi urteetan zehar egindako lorpen eta aurrerapen nagusiak:

- **IEPko jardueren batez besteko aurrerapen-maila altua.** IEPk barne hartzen dituen 75 jardueretatik ia bi heren (% 64) modu egokian garatzen ari dira, aurreikuspenen arabera (5. taulako 1. eta 2. multzoak), eta horietatik hiru amaituta daude dagoeneko (5. taulako 1. multzoa). Jarduera-multzo horren kasuan, amaitu eta helburuak lortu arte erritmo egokia mantentzen jarraitzea ahalbidetuko duen arreta eta baliabideen maila mantentzea da lehentasuna.
- **IEPren gauzatze-maila altua, oro har.** IEPren egikaritze-maila % 54koa zen 2016. urte amaieran. Zifra hori oso modu positiboan baloratu behar da oro har, oraindik indarraldiaren heren bat bakarrik igaro baita eta, beraz, 2020ko horizontera iristeko lau urte falta baitira.

- **IEPren jarraipenerako maila goreneko konpromisoa eta inplikazioa, eta jarraipen-prozesuko beste hobekuntza batzuk.** Ingurumen Sailburuordetzako zuzendaritza-taldeak jarraipen-prozesuan eta solaskideen lankidetzara deitzeko aurkezpenean izan duen inplikazioa eta konpromisoa erabakigarria izan da partaidetza arrakastatsua izan dadin. Horrela, bada, solaskideen erantzun-maila erabatekoa izan da, lehenengoz, IEPren jarraipena egiten denetik. Lortutako erabateko lankidetzara-maila horri jarraipen-prozesuaren garapena erraztu duten beste hobekuntza metodologiko batzuk gehitu behar zaizkio.
- **Jarraipen-taldea osatzen duten profilen aniztasuna eta partaidetza-maila altua.** Jarraipenean parte hartu zuen taldea sektore publikoko 22 adituk osatuta zegoen. Horiek profil teknikoa zuten, eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, sozietate, erakunde eta fundaziori zegozkien, honako hauei, esaterako: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (Ihobe); Uraren Euskal Agentzia (URA); Energiaren Euskal Erakundea (EEE); Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua; Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuordetza; Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza; Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (Elika); eta landa, itsasertz eta elikagaien garapenerako Hazi Fundazioa.

Hurrengo lau urteetarako erronka nagusiak honako alderdi hauei dagozkie:

- **Erritmo egokian edo aurreikusia baino erritmo baxuagoan garatzen ari diren jarduerak sustatzea.** Gomendio horrek 5. taulako 3 eta 4. multzoetako jarduerari egiten die erreferentzia.
- **2017rako zehaztutako lehentasunezko jarduerari emandako bultzada areagotzea.** Jarduera-multzo horren aurrerapen-maila, oro har, ez da gehiegi aldatzen 2020rako denbora-muga duten jardueren aurrerapen-mailarekin alderatuta. Hori dela eta, jarduera horiek 2017. urtean zehar are gehiago susta daitezela eskatuko da, betiere urte horretarako zehaztutako anbizio handiko helburuak bete daitezela.
- **Lidergoia sendotzea, izaera berritzaileagoa eta zeharkakoagoa duten jarduerak sustatzeko.** Ingurumen-politikako ideia eta joera berriekin lotutako jarduerak (horiek zeharkako izaera handiagoa izaten dute askotan) heldutako eta finkatutako jarduerak (hau da, euskal ingurumen-politikako «*business as usual*» agerlekua osatzen dutenek) baino aurrerapen-maila nabarmen baxuagoa izaten dutela ikusi da. Horrenbestez, garapen-egoera baxua duten jarduera berritzaile horiek nabarmen sustatzea eskatuko da, eta horien garapena eta lidergoia bereganatzeko gai diren erakunde zehatzei esleituko zaie horiek ezartzearen erantzukizuna, horiek aurrekontu egoki batekin babestuz. Jarduera horien adibideen artean, 4., 6., 10., 13., 55. eta 64. jarduerak ditugu.

- **Lehentasuna berrebaluatzea eta, hala badagokio, horien aukerari/indarraldiari buruzko zalantzak sortu dituzten jarduera zehatzak berriz bideratzea.** Mota horretako jardueren adibideak: 3. eta 58. jarduerak.
- **IEPk kontuan izan beharreko erreferentzia gisa duen eginkizuna sustatzea, Ingurumen Sailburuordetzari dagokion jardueraren urteko plangintza zehazteko.** IEPren eta hark barne hartzen dituen jardueren inguruko hausnarketak –Ingurumen Sailburuordetzaren jardueraren urteko plangintza zehazteko orduan kontuan hartu beharreko erreferente gisa– oso bestelakoak direla ikusi dugu. Kontsultatutako sailen eta erakundeen kudeaketa-memoria eta jarduketa gehienek ez dute IEP deskribatutako jardueren erreferentziako, justifikaziorako edo inspiraziorako elementu gisa hartzen. K dokumentu horietan duen ikusgaitasuna eta presentzia sustatu beharko litzateke, baita Ingurumen Sailburuordetzaren jardueraren plangintza-prozesuan ere, nahitaez kontuan hartu beharreko erreferentzia gisa.
- **Jarraipen-prozesuan erakundeen arteko partaidetza areagotzea.** Jarraipenean parte hartu duten adituen taldea Eusko Jaurlaritzako sail, erakunde eta elkarteetara atxikitako langileek osatzen dute, oro har. Ingurumen Esparru Programaren definizioa eta bokazioa kontuan hartuta, erakundeen dibertsitate handiagoak parte hartu beharko luke jarraipen- eta ebaluazio-lanetan, horrela, ekarpenak aberastu ahal izateko.
- **IEPri buruzko prestakuntza eskaintzea.** Kontsultatutako adituen artean oso bestelakoa da IEPri buruzko ezagutza. Hori dela eta, bitartekoak gehiago sendotu beharko dira, haren sustapen-, ezarpen- eta jarraipen-prozesuan eginkizun garrantzitsuak bereganatzen dituzten pertsonen IEPri buruzko ezagutza gehiago izan ditzaten.
- **IEPren jarraipen-prozesuan hobekuntzak txertatzen jarraitzea (etengabeko hobekuntza gisa).** Prozedura hobetzeko hainbat aukera identifikatu dira, eta horiek hurrengo ekitaldietan txertatu eta garatu beharko dira. Jarraipen-emaitzen azken balioztatze- eta partekatze-fasea sendotu beharri dagokio garrantzitsuena. Era berean, aurrera egin beharko da jarraipen-parametroen aplikazio- eta balorazio-irizpideak finkatu eta homogeneizatzeko prozesuan.

Taulen aurkibidea

1. Taula	2020rako IV. IEPren jarraipen- eta ebaluazio-helburuak	7
2. Taula	2015eko jarraipen-metodologiaren ebaluazio kritikoa.....	18
3. Taula	IV. IEP. Ezarpen-ehunekoaren laburpena	25
4. Taula	IV. IEP. Aurrerapen-mailaren laburpena.....	27
5. Taula	Jardueren inguruko balorazioen laburpena	28

Irudien aurkibidea

1. Irudia	2020rako IV. IEPren jarraipen- eta ebaluazio-tresnak	1
2. Irudia	2020rako IV. IEPren egitura	3
3. Irudia	Ingurumenean eragiten duten dokumentu estrategikoen adibideak	6
4. Irudia	IV IEPren jarraipen - eta ebaluazio-helburuak.....	8
5. Irudia	Proiektu bakoitzaren jarraipen-emaizten sintesia.....	11
6. Irudia	2016ko jarraipen-metodologia	19
7. Irudia	Jarraipen-parametroen eskalak	22
8. Irudia	Jarraipen-irizpideen aplikazioari dagokion adibide argitzailea	23
9. Irudia	IV. IEP. Ezarpen-ehunekoaren laburpena	24

Koadroen aurkibidea

1. Koadroa	Zer dira proiektu giltzarriak?.....	4
2. Koadroa	Jarraipen-irizpideen interpretazioari buruzko ohar argigarria	9
1. PROIEKTU GILTZARRIA ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA INGURUMENAREN ALDETIK.....		12
2. PROIEKTU GILTZARRIA. LURRALDE OSASUNGARRIA		13
3. PROIEKTU GILTZARRIA. INGURUMEN-FISKALITATEA.....		14
4. PROIEKTU GILTZARRIA. FABRIKAZIO BERDEA		15
5. PROIEKTU GILTZARRIA. ELIKADURA ZIRKULARRA		16
6. PROIEKTU GILTZARRIA. AZPIEGITURA BERDEAK		17
3. Koadroa	Galdeketako galderak (berdinak jarduera guztietarako)	20

Dokumentu honetan erabili diren siglak eta akronimoak

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EKPB	Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea
FFAA	Foru Aldundiak
LAG	Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak
ILPES	EJren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
EJ	Eusko Jaurlaritza
IHOBE	ILPESen Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
JL	IV. IEPren Jarduteko Lerroa
HE	IV. IEPren Helburu Estrategikoa
IEP	Ingurumen Esparru Programa
Ingurumen Sailburuordetza	ILPESen Ingurumen Sailburuordetza